

Martinak oso gustuko du futbola,
baina bere eskolako futbol-taldean bada
neskek okerrago jolasten dutela uste duenik.

Lortuko ote du Martinak
oker daudela ikusaraztea?



MARTINA FUTBOLARI

Susanna Isern

Marta Moreno



MARTINA FUTBOLARI




Susanna Isern

Marta Moreno



nubeocho



Yuna nire futbolari txikiarentzat.

Susanna Isern

*Ezagutzen ditudan neska futbolari guztientzat,
gero eta gehiago garelako, eta benetako berdintasuna
lortze bidean ordezkari garelako.*

Marta Moreno

É

É G A L I T È

Martina Futbolari
Egalité Bilduma

© testuarena: Susanna Isern, 2024
© irudiena: Marta Moreno, 2024
© argitalpenarena: NubeOcho, 2024
© itzulpena: Maialen Mujika, 2024
www.nubeocho.com • info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Martina Futbolista*

Lehen argitalpena: Martxoa, 2024
ISBN: 978-84-10074-49-1
Gordailu Legala: M-3202-2024


Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen kopiaketa.

MARTINA FUTBOLARI

Susanna Isern
Marta Moreno




nubeOCHO

Martinak izugarri gustuko du futbolean aritzea. Baloia oinetan duela, edozer egiteko gai dela sentitzen du: munduaren beste puntaraino iritsi, baloia hodeiak laztantzeko bezain altu jaurti, edo baloiari ukituak ematen aritu infitura arte, afaltzeko deitzen ez badiote behintzat.



Egun batez, Martinak eskolako futbol-taldean izena ematea erabakitzen du. Dinoen taldean.

—Kaixo, nire izena Martina da. Zuen taldean sartu nahiko nuke.

Mutilak txutxu-mutzuka hasten dira.

—Ondo da, taldekide bat falta zaigu eta jokalaria beharrea gaude —dio gogotzarrez Alexek, taldeko kapitainak—. Zu atzelaria izango zara.




Martina Dinoen taldearekin entrenatzen hasten da. Liluratuta dago taldearen parte izateaz. Alabaina, laster ikusten du taldekideen artean lehiakortasun handia dagoela.



Denek izan nahi dute
“azkarrena”,

“ondoan driblatzen duena”, eta
“gol gehien sartzen dituenena”.



Eta hau ez zaio batere
gustatzen Martinari.

Denetan lehiakorrena Alex da, taldeko kapitaina. Denek miresten dute eta bera bezalakoa izan nahi dute gol gehien sartzen dituen delako beste talde batzuekin jokatzen duenean.



Baina Martina ez dago ados. Berak nahiago du Jorge, berarekin batera atzelari moduan aritzen dena. Horma baten parekoa da, eta ez du aurkaririk atera hurbil dadin uzten.

—Zentzugabea da aurrelariak gainerako jokalariek baino gehiago balioestea —kexatzen da Martina.

Aurkari latz batzuen aurkako partiduan, Dinoen taldeak bi gol sartzea lortzen du. Defentsan, Martina eta Jorgek bikote ezinhobea osatzen dute eta haien atea suhartasunez defendatzen dute, aurkariari gol bakar bat ere sartzea eragotziz.

Martina oso ona da bere postuan, baina, hala ere, taldekideek alde batera uzten dutela sentitzen du. Baloia atzelariari pasatzerakoan, beti Jorgeri pasatzen diote eta ez berari.



Dinoek abantaila daramate, baina, bigarren zatian,
aurkariak berdintzea lortzen dute.

Lehia handiko partidua da. Bukaera gerturatzen ari denean,
Alexek aurkako atera hurbiltzea lortzen du. Eskuinetara duen
taldekideak askoz angelu hobea du atera jaurtitzeko.

—Pasa baloia, Alex! —oihukatzen dio.



Bere kokalekua askoz okerragoa izan arren, Alexek
baloia jaurtitzea erabakitzen du baina aurkariak
atezainak baloia galditzea lortzen du.

